




ITERAZABATA KONTZERTU GONDA 19:30etarik aurrera	TXERRIMUÑO 19:00-20:00	KIRLODEGIA DUTAK LARRUNBATA 9:00-12:00 ETA 12:00-18:00 IGANDA 07:00-09:00	ZERBITZUAK IRISGARRITASUNA PARKINGA TAILERRAK NATURA INFOGUNA MUSIKA TOKEN TRUKAKETA URRA BARRA
ERRO PAKETA KONTZERTU GONDA 19:30etarik aurrera	AUDITORIOA 19:00-20:00	BERRA 12:00-20:00	ESKURTO PLATERA BOSKARIA HITZADIAK IKUSKIZUNAK BOKATAK PUNTU MOREA DIK BONO TRUKAKETA KOMUNA
LUBANA AKANPEKUA	ETXARTE	TINETAN	
AKETA	IRAIKUNDO		
HERRIO PLAZA	INDARROGUEA SANTOKA OSTIRALA 12:00-00:00 LARRUNBATA 14:00-00:00		
LUDOTEKA	FURDUNETA PARRIKIA		



OSTIRALA

GATAZKA ETA ERAIKUNTZA FEMINISTAK

Zaintzen auzia erdigunean jarri du Euskal Herriko mugimendu feminista azken urteetan eta, zaintzen krisiak gure bizitzak zeharkatzen dituen honetan, apustu handia egin du herri akordio proposamena eta modu arrakastatsuan aurrera eramandako greba feminista orokorren bidez. Ugariak dira aurrera eramandako ekimenak, eta baita tes-tuinguru honetan aurretik ditugun erronkak. Eredu desberdinetako begiradak uztartuz, egindakoari eta egiteko dugunari begiratuko diogu mahai-inguru honetan

- Ostirala, 29
- 12:00
- Auditorioa
- Oihana Etxebarrieta
- Alaitz Uriarte
- Uma Ulazia

HERRIALDE KATALANETAKO IKASLE GREBA AZTERGAI!

Iragan den abenduaren 14an ikasle greba feminista deitu zuen SEPCk Herrialde Katalanetan. Hezigureetan ikasleok pairatzen dugun indarkeria matxistatik abiatatu, hezkuntza sistemak generoaren sozializa-zioan duen paperaz, antifeminismoaz eta erreakzioaz, autodefentsa feministaz eta hezkidetzaz mintzatuko gara, hezkuntza feminista ipar.

- Ostirala, 29
- 12:00
- Ludoteka
- Sindicat d'Estudiants dels Països Catalans

ALDAKETAREN ERRELATOA

Herri bezala non gauden aztertzekeo tartea hartzea garrantzitsua da aurrean ditugun erronkei erantzun ahal izateko. Burujabetza eta eral-daketa sozialean sakontzearen norabidean ertz ezberdinak ukituko dira hitzaldi honetan. Bertan, maila ideologiko-kulturealean ematen ari diren aldaketak aztergai herri mugimenduaren zein instituzioen eta guzti ho-netan gazteok izan beharreko paperaren inguruan hausnartuko dugu

- Ostirala, 29
- 13:30
- Ludoteka
- Erantz Saez de Egilaz
- Beñat Jusue
- Asier Zamorano

KOMUNIKAZIO POLITIKOA

Komunikazioaren aroan bizi garela entzuten dugu sarri, komunikatze-komodu berriek gure bizitzak zeharkatzen dituztela. Edonon ikus dit-zakegu zuzenekoak, podcastak, txioak, tik-tokak,... Baina zein eragin du horrek gugan? Nola eragiten dute eremu desberdinetatik politika egiterako orduan? Zein erronka eta zein aukera sortzen ditu ezkerriari, nazioari edo feminismoari dagokionez?

- Ostirala, 29
- 13:30
- Txerrimuno
- Laura Ré
- Estitxu Garai
- Iraitz Mateo

KRISI EKOSOZIALA ORAIN ETA HEMEN

Krisi ekosoziala ez da zerbait abstraktua: egunerokotasunean kontsu-mitzen dugun energia, jaten ditugun elikagaiak eta erabiltzen dugun garraioarekin lotuta dago, besteak beste. Orain eta hemen ematen ari da, heldu diezaiogun bada auziari. Zein da krisi ekologikoaren egoera? Nola egingo diogu aurre krisi klimatiko, energetiko eta elikadura krisia-ri? Eta zein izan behar da gazteon eta Gazte Mugimenduen ekarpena?

- Ostirala, 29
- 18:00
- Ludoteka
- Gorka Laurnaga
- Jokin Bergara
- Aintzane Ariztegi

BIZITZA DUINEN ALDEKO UDABERRIA

Gazteok arriskuan gaude eta gure egoeraren gaineko eztabaida ireki nahi dugu Euskal Herrian. Baina errealitatea problematizatzeetik hara-tago, udaberriarekin batera aldaketak ekarriko dituzten proposame-nak mahaigaineratuko ditugu.

- Ostirala, 29
- 16:30
- Akeita
- Ane Alava
- Markel Rio
- Amañur Arbe



LARRUNBATA

BEGIRADA BAT PALESTINARI

Albisteek kontrakoa badiote ere, Euskal Herrian jakin badakigu Palesti-narekiko Israeliek garatzen ari duen genozidioa duela hamarkadak hasi zela, eta beraz, ez dela momentuko egoera isolatu bat. Palestinarekiko okupazioa, indarkeria eta kolonizazioa sistematikoa diren honetan, egungo errealitateaz, JSR ezberdinez, aliantzez eta irtenbide posi-bleez mintzatuko gara FOLPKo kidea den Majed Dibsirekin.

- Larunbata, 30
- 10:30
- Auditorioa
- Majed Dibsir

GUK UTOPIKOOK

Telesfororen hitzei jarraiki, galdera berri ugari plazaratu dira azken hamarkadetan, zerki limurtzen gaitu? Nondik eta nola eraikitzen ditugu desira hauek? Utopiek, desirak edo pasioak zein paper jokatzen dute nazio askapenean, zein bestelakoproiektu emantzipatzaileetan? Emozioen eta arrazoiaren arteko dikotomia arrakalatzen dituen ikuspe-gietatik tirako, galdera hauen inguruan hausnartuko dugu.

- Larunbata, 30
- 10:30
- Ludoteka
- Lur Albizu
- Mikel Urdangarín

ETORKIZUNERA BEGIRADA PELLO OTXADIANOREN ESKUTIK!

Erronka potoloak ditu gure herriak aurretik eta horien artean parez-pa-rez ditugun erronkei heltzeko unea landuko dugu solasaldi honetan. Al-daketa handia bat ematen ari da gure herrian; ziklo politiko berri bat irekitzen ari da eta honetarako EHBilduren aldeko apustu irmoa egiten dugu gazteok. Solasaldi honetan belaunaldi berriok gure herriarekiko dugun lotura eta konpromisoa ardatz gazte militantzia, etxebizitzaren auzia, bizitzaren garestitzea, osasun mentala... landuko ditugu.

- Larunbata, 30
- 12:00
- Akeita
- Pello Otxandiano
- Ederne Benito del Valle
- Erantz Saez de Egilaz
- Izar Hernando

ITALIAREN ITZALPETIK

azken urtean sarritan entzun dugu hedabideetan Georgia Meloniren al-derdieren eskutik eskuin muturra Italiako gobernuara heldu dela. Euro-pako gertakari isolatu gisa ulertu ez, eta hitzaldi honetan fenomeno horri erreparatuko diogu; nola heldu diren egoera honetara, eta zein gogoeta, praktika eta aliantza lantzen ari diren ezker mugimendueta-tik erronka zahar-berri hauei aurre egiteko. Honekin batera, Italiak za-paldutako estatuturik gabeko nazioei erreparatuko diegu. Pobreziaren, mafiaren eta turismoaren estereotipo hedatuetatik harago, bertako herriareko erresistentzia eta borroka esperientziak ezagutzeko: inde-pendentsiaren aldekoak, base militarren eta proiektu suntsitzaileen aurkakoak, hegoaldeko feminismoenak.

- Larunbata, 30
- 16:30
- Ludoteka
- Trinacria

PORNOA. DESIRA. MORALA ETA PLAZERRA

Jendartearen eta bereziki gazte askoren ahotan egon da azken aldian pornografiaren gaia. Hitzaldi honetan gaiari helduko diogu baina ikus-pegi trans-feminista batetik; cis-heteropatriarkatuak sustatzen duen eredu erotiko moralista eta arraztealea alde batera utzi. Bertan desira, plazera eta moralaren inguruko gogoeta ezberdinak plazaratuko di-tugu; genero arauarekin apurtzea, sexu zein genero identitateen markoa zabaltzea, maitasun erromantikoaren mitoa... eta beste hainbat ertz ukituko

- Larunbata, 30
- 16:30
- Akeita
- Iñi Etxezarreta
- Lorea Gurutzarri

EUROPA ARGI ILUNEN GARAIAN

Mundu mailako trantsizio geopolitiko luze bat bizi dugu: II. Mundu Ge-rtratik indarrean egon diren nazioartekoorden neoliberal amaitu da, izan ere, AEB botere ekonomiko eta militarra galtzen ari da.

Aldeberean, autoritarismoaren eta gerren areagotzea ikaragarria da. Testuinguru honetan, non eta nola kokatzen da Europa? Nazioarteko egoerari erreparatu, Europako tendentzia politiko eta sozioekonomi-koetan sakundu eta estatuturik gabeko nazio zapalduen aukerak azter-tuko ditugu.

- Larunbata, 30
- 18:00
- Ludoteka
- Ainhoa Bueno
- Iker Eizagirre
- Martin Arceo

OHOLTZATIK IRAULTZARA

Euskal herrian eztena musikak garrantzi handia izan du hamarkadaz hamarkada gure herria eta gure kultura ulertzerako unean. Hltzaldi ho-nen bidez oholtza bera egiteko eta egiteko modu bat dela landu nahi da. Aldaketa handiak eman dira azken hamarkada honetan kultura mu-sikalean eta honek galdera berri ugari ireki ditu. Gaztetasunetik, trans-feminismotik eta euskal herriko gazte eztena musikala kontuan hartu-ta analisi ezberdinak plazaratzeko unea izango da hau.

- Larunbata, 30
- 18:00
- Txerrimuno
- La Fulana
- Ekaitz Telletxea
- Irune Elgezabal

